


Altzan musika eta euskara indartsu eta bizirik



Txinataun talde
altzatarra
kontzertuan.

«HALTZAK ez omen du bihotzik» dio esakune zahar batek. Hori ez dakigu, baina edozein modutara ere, altzatarrek musika bihotzez eta gogotik jotzen dutela esan behar. Hori frogatzeko, larunbat lainotsu batean Buenavista aldera jotzea erabaki genuen; Altza eta Pasaia artean kokaturik dagoen gunen horretan, jo ta ke musika doinuak entzungo baituzu bertatik iragaitea pensatzen baduzu.

Buenavista dugu Altzako musika entseialekurik garrantzitsuena, eta beraz, esan bezala, toki aproposan geunden Altzako musikaren nondik norakoen berri jakiteko.

Perkusio eta gitarra zaraten artean, gelatxo batean sartu ginen eta hantxe genituen gurekin aurrez aurre, Pedro Contradiction taldekoa, Manolo Hondakin-ekoa, Iñaki Exit-ekoa eta azkenik Joxerra Txinatown taldekoa laguntzaile izan genuen.

Musika doinu eta barre algarekin hasi genuen elkarrizketa, eta lehen-lehenik musika taldeen berri eman ziezaguten eskatu genien. Dagoeneko desagertuak

daude Arkhe, Gurutze Beltzak eta Brutal Deach. Horietatik bik euskaraz abesten zuten, baina esan bezala, dagoeneko jotzeari utzi diote.

Momentu honetan berriz, Hondakin, Exit, Etnies, Baldarrak, Txinatown eta Contradiction taldeak ari omen dira Altza aldean jotzen. Horietatik erdiek euskaraz abesten dute, eta euskaraz abesten ez dutenek, gutxienez ba omen dituzte zenbait abesti euskaraz beren erreperatorioan. Litekeena da beste talderen bat egotea, baina oro har gehien mugitzen direnak horiek dira.

Beraz, gutxi edo gehiago, ikuspegi orokor bat eman zigutenez, euren kezken berri jakin nahi izan genuen eta entseatzeko izan dituzten oztopen inguruan galdegin genien. Beraien esanetan, hasieratik zaila izan zaie lokala lortzea, eta hori egiterakoan bizilagunekin arazoak eduki ohi zituzten zarata zela

bide. Beraz, Herrerako auzotegira joan ziren ondoren, baina udala bertan sartu zenean, oso arau zorrotzak ezarri zizkien euren lana mugatuz. Beraz, zenbait taldek bat egin eta Altzako Buenavistan ari dira momentuz jotzen.

Estiloari buruz galdegitean, musika estilo desberdinak jotzen dituztela esan digute; baina orokorrean rock and roll,

batzuetan dutena baino laguntza gehiago behar badute ere, euren esanetan.

Euskararen inguruan galdegin diegunen, zera esan digute: erdiak gutxienez euskaraz ari direla eta gainerakoek zenbait abesti euskaraz dituztela. Ez dituztenek, berriz, aurrerantzean ateratzea ez dute baztertzen. Horiek datu garrantzitsuak irudituz zaizkigu, jakin baitakigu euskararen egoera tamalgarria dela Altzan.

Disko plazaratzearen inguruan, momentuz batzuek maketa ateratzea ere, ez dute diskoa ateratzea helburu, batez ere lagun giroan ondo pasatzeko

jotzen baitute. Hala ere, egunen batean aukera hori egonez gero, plazaratuko omen lukete diskoa. Gainera, euren esanetan, diskoa ateratzea garestia bada, horri zera gehitu behar zaio, musika tresna eta lokalaren mantenuarekin dituzten gastuak. Batzuek gainera izugarritzko inbertsioak

egin dituzte. Gutxien gastatu duenak 80.000 pezeta utzi omen ditu, esan digutenez. Alde horietatik, zenbaitetan tabernariak ez omen dituzte musikarien diru arazoak kontutan hartzen; tabernarientzat kontzertuak antolatzea garestia delako. Gainera, taldea ezaguna ez bada, soilik lagunak joan ohi dira kontzertuetara, eta beraz, arazo horren aurrean aurkitzen dira Altzako zenbait talde. Ondorioz, Kultur Etxe nahiz Udalaren laguntza gehiago eskatzen dute kontzertuak ematerako orduan.

Gai horien inguruan aritu ginen bada Altzako musikari ezberdinekin. Ez dira talde handiak baina bai Altzakoak eta garrantzitsuak irudituz zitzaigun musikagintza eta hizkuntzaren nondik norakoen berri jakitea. Egia esan, xehetasun guztiak eskuratu genituen. Grabagailua bero-bero genuen, argazki pareak ere esku artean, beraz elkarri agurra egin eta ateratzen ginen Buenavistatik.

Altzako Azpil AEK euskaltegiko
S. urratseko ikasleak

Disko plazaratzearen inguruan, momentuz

batzuek maketa ateratzea ere,

ez dute diskoa ateratzea helburu, batez ere

lagun giroan ondo pasatzeko jotzen baitute.

Hala ere, egunen batean aukera hori

egonez gero, plazaratuko omen lukete diskoa

punk-rock eta hardcore musika dira gehien jotzen direnak.

Bien bitartean, Altzan kontzertuak emateko tokirik ba ote duten galdetuta baiezkua erantzun digute. Kultur Etxea, Santa taberna, Txalaka elkarte eta pilotalekua dira oro har musika emanaldiak egiteko guneak,

Testuak: Mikel Lizarralde

Altzan musika eta euskara indartsu eta bizirik



Ari naizela

Gehigarri honetan

ASTEARTEA,
1997-V-6

Egunkaria

Kalamuz betetako ortua. Kalamudia elkarteak cannabis landaketa egin berri du.

Altzan musika eta euskara indartsu eta bizirik. AEK euskaltegiak helarazitako erreportaia.

Ikaslearen txokoa. Argitalpenak, asteko agenda, euskalduntzeko telefonoak eta abar.

Getxoko soinua musikazaleen artean ezaguna den bezalaxe —El Inquilino Comunista, Lord Sickness—, Altzako Buenavista auzoa punk-rockaren inguruan mugitzen diren talde askoren sorleku izan da. Nuevo Catecismo Catolico, Señor No, Why Not?, Discipulos de Dionisos eta talde gehiagok Donostiako hiri inguruan eman zituzten lehen pausok musika munduan, eta ondoren ezagu-

tzera eman dira Euskal Herrian. Horieta-ko batzuek gure mugak gainditu dituzte-
la ere esan dezakegu. Baina Buenavista ez dago geldirik. Gaur egun ere badira hainbat rock talde ezagutzera emateko irrikitan Altza aldean, eta gogotik jotzen dute beren ametsa egia bihurtzeko. Jakina, nahia eta emaitza ez datoz askotan bat, eta gaur egun Buenavistan jotzen duten taldeei ez zaie erraza egiten aurrera egi-

tea, orain arte entseatzeko arazoak izan dituzte eta. Hizkuntzari dagokionez, batzuek euskaraz abesten dute, eta beste batzuek badituzte euskarazko kantu batzuk. Altzako AEK euskaltegiko ikasleek egin digute aste honetako erreportaia. Gogora itzazue izen hauek; agian egunen batean sarri entzungo dituzue: Hondakin, Exit, Etnies, Baldarrak, Txinatown eta Contradiction.